



AKTEA/17

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA (2026-07-14)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2026-07-14 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:30
Amaiera-ordua:	08:35
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	CARUEZO UGALDE MAITE GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE ORTUZAR BUTRON XABIER
Bertaratu ez direnak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA
Idazkaria:	BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0016DE1B0000Q5V2T9U7X2

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 15/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 13:34:44

DOCUMENTO: 20261498651

Fecha: 15/07/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-06-30 TGB (16)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Aritzatzuko kantinaren zehapen espedientea hastea onartzea.
- 4.- Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetza-hitzarmena (LAN MENTORING 2026) sinatzea onartzea.
- 5.- 72314787G zenbakidunaren langilearen guraso baimen eskaera onartzea.
- 6.- Alkatetza dekretuen berri emotea. Ekainak 22-26 eta ekainak 29 uztailak 5.
- 7.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-06-30 TGB (16)

Bertaratutako batzarkideek 2026ko ekainak 30ko 16/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- ARITZATXUKO KANTINAREN ZEHAPEN ESPEDIENTEA HASTEA



ONARTZEA.

Xedea

Zehapen espedientearen hasiera: Aritzatxuko kantina.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2026ko ekainaren 14an, Bermeoko Udaltzainek, Aritzatxuko hondartzan zaratak zeudela zalatzen zuten deiak zirela eta, bertaratzean ikusitako egitateak jasotzen duen txostean egin dute. Bertan, bestak beste, ondorengo gertakaria adierazi zuen:

- Data: 2026-06-14
- Ordua: 2:00 gutxi-gora-behera
- Gertaera: Funtzionamenduan egoteko ordutegia ez betetzea.

Bigarrena.- 2026ko uztailaren 1ean, Idazkaritzako AOTk txostena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa.- Emakidaren Baldintza Agirietan, 20. Puntuan, arau-hauste larriak zehazten dira, eta horien artean honako hauek daude:

4.- Sektoreko legerian edo emakidaren xede den jarduerari eragiten dioten udal-ordenantzetan jasotako xedapenak ez betetzea.

6.- Plegu honetan adierazitako betebeharrak ez betetzea

Bigarrena.- Aurrekarietan adierazitako, eta zehapen espediente honen objektu den jarduerak Ostalaritza Jardueren eta antzekoen instalazioari eta funtzionamenduari buruzko ordenantzaren (BAO 2013-11-19) 45. artikuluan zerrendatzen dira:

“45.2 artikulua.—Lege eta arau urratzeak

(...)

- Funtzionamenduan egoteko ordutegirik ez betetea.

- Ateak eta leihoak zabalik edukitea.”

Hirugarrena.- Pleguetan adierazitako betebeharren artean, 15.B puntuak

3



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0016DE1B0000Q5V2T9U7X2

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 15/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 13:34:44

DOCUMENTO: 20261498651

Data: 15/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016DE1B0000Q5V2T9U7X2



honakoa zehazten du, beste batzuen artean:

“Kantina jendaurrean zabalik egongo da egunero, 10:00etatik 23:00etara. Ordu horietatik kanpo ezin izango da zabalik egon.”

Laugarrena.- Bermeoko Udaltzainburuaren txostenean zehazten den gertaeratik eratorritako arau haustea larria izan daiteke, emakida arautzen duten pleguen arabera.

Arau hauste horiei dagokien zehapena, aipatutako pleguen arabera, honakoa izan daiteke:

2.- Arau-hauste larrien kasuan: 751,00 eta 1.500,00 euro artean

Bosgarrena.- Zigorren graduazioari dagokionez, honakoa zehazten dute pleguek:

“Isunaren zenbatekoa mailakatzeko, kontuan hartuko dira eragindako kalteen zenbatekoa, ukitutako ondasun edo eskubideen balioa, erantzuleak behin eta berriz egin izana eta erantzulearen erruduntasun-maila. Inguruabar aringarritzat hartuko da arau-hausleak errekerimenduan adierazten den epean sortutako egoera zuzentzea, isuna erdira murrizteko.”

Seigarrena.- Honako hau identifikatu da ustezko arduraduntzat:

- Establezimendua: I.G.P.
- Ustezko erantzulea (NAN/AIZ): 79367723J

Zazpigarrena.- Eskumenari dagokionez, hertsatze isunak ezartzeko eskumena Alkatearena da, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 21-1-s) artikuluari jarraiki. Hala ere, 2026ko otsailaren 26ko 2026 1131 Alkatetza Dekretuz eskumen hau Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu ditzaien.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Administrazio erantzukizunik ote dagoen argitzeko 79367723J NAN/AIZ zenbakidunaren aurkako zehapen espedientea hastea.



Sinadurea eta data



- Ustezko erantzulea: 79367723J
- Prozeduraren hasiera eragin duten ekintzak edo ez egiteak:
Funtzionamenduan egoteko ordutegirik ez betetzea.
- Arau hauste data: 2026-06-14
- Arau hauste ordua: 2:00
- Kalifikazio posiblea: Arau hauste larria.
- Legozkiokeen zehapenak:
 - 751-1500 eurora arteko isuna.

BIGARRENA.- Bermeoko Udaleko Idazkaritzako AOTa izendatzea zehapen prozeduraren espediente-egile. Pertsona hau errefusatu egin ahal izango da Sektore Publikoen Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 24.artikuluari xedatutakoa betetz.


HIRUGARRENA.- Espedientea ebazteko eskumena daukana Tokiko Gobernu Batzarra dela jakinaraztea interesdunei.

LAUGARRENA.- Interesdunari jakinaraztea bere erantzukizuna borondatez aitortu ahal izango duela, 39/2015 Legearen 85 artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.

BOSGARRENA.- Interesdunari 10 eguneko epea ematea nahi dituen agiri, alegazio eta informazioak aurkeztu ditzan, edo frogaldia zabaltzea eskatzeko edota erabiliko dituen bideak zehaztuz frogak proposatzeko.

SEIGARRENA.- Interesdunari jakinaraztea ebazpen adierazlea emateko gehienezko epea 6 hilekoa dela, zehapen espedientea hasteko erabakia hartu den egunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, prozedura interesdunari egotzi dakioken arrazoren bategatik gelditzen bada ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa ere, gelditu egingo da. Jakinaraziko zaio, era berean, ebazpena emateko gehienezko epea igaro eta ebazpen adierazlea jakinarazi ez badu, prozedura iraungi egingo dela 39/2015 Legeko 25. artikuluan administrazio-isiltasunari



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261498651
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 15/07/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/07/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 13:34:44		Data: 15/07/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia



buruz dioenaren arabera. Kasu horretan, iraungitzea adierazten duten ebazpenak jarduketak artxibatzeko aginduko du, eta 95. artikuluan xedatutako ondorioak izango ditu; hau da, prozedura iraungitzeak ez du beste barik norbanakoen edo administrazioaren akzioen preskripzioa ekarriko, ezta preskripzio-epearen zenbaketa geldituko.

ZAZPIGARRENA.- Bermeoko Udaltzain buruaren txostena jakinaraztea egintza honekin batera.

ZORTZIGARRENA.- Interesdunari erabaki honen berri ematea eta jakinaraztea izapide hutsa den egintza dela, eta honen aurka ezin daitekeela errekurtsorik jarri.

4.- BERMEOKO UDALAREN ETA INNOBASQUEREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA (LAN MENTORING 2026) SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzaz hitzarmena (LAN MENTORING 2026) sinatzea

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren lehentasun estrategikoetako bat herriko enpresen lehiakortasuna indartzea da eta hazkunde ekonomikoarekin eta enpleguari eustearekin zein enplegua hobetzearekin konprometitutako erakundea da; beraz, bere inguruko enpresen lehiakortasuna hobetzearekin eta, hortaz, berrikuntzarekin konprometituta dagoen erakundea da.

Bigarrena: Enpresek belaunaldi erreleboaren erronkaren eta beren langileen zahartzearen ondorioz eskumen kritikoak galtzeari hel diezaioten errazteko, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak, INNOBASQUE Berrikuntzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin, Lan Mentoring zerbitzua jarri dau abian, euskal ETE-ei belaunaldi erreleboan eta adinaren kudeaketan laguntzeko.



Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 15/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 13:34:44

DOCUMENTO: 20261498651

Fecha: 15/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Hirugarrena: Lan Mentoring programaren bitartez, Bermeoko Udala-Behargintza bitarteko eragilea izango da, bere eraginpeko ETEei lagunduz adinaren kudeaketari eta belaunaldi-erleboaren kritikotasunari buruzko diagnostikoak egiten.

Laugarrena: Bermeoko Udalak, bitarteko eragile modura, Innobasqueren aldetik 600€ jasoko dauz, Lan Mentoring zerbitzuaren esparruan belaunaldi-erleboaren kritikotasunari eta adinaren kudeaketari buruzko diagnostikoa egin jakom enpresa bakoitzeko, LANBIDEK baliozkotuta eta 2026ko abenduaren 31 baino lehen.

Bosgarrena: 2026ko ekainaren 26an, Behargintzako Koordinatzaileak hitzarmenaren justifikatze memoria egin dau.

Seigarrena: 2026ko uztailaren 1ean, Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, txosten juridikoa egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikularen b), r) eta s) atalen arabera, alkateari dagokio, baina 2026ko otsailaren 26ko 1131 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Bigarrena: Innobasque (irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua) eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetzaren eta horren ondorioz Bermeoko Udalak eskuratuko dauan dirulaguntzaren baldintzak zehaztu eta hitzartzea ezinbestekoa ikusten da, alde bien betebeharrak eta eskubideak jasotzeko, besteak beste.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: LAN MENTORING Programa aurrera eramateko, Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.



BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daian.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

5.- 72314787G ZENBAKIDUNAREN LANGILEAREN GURASO BAIMEN ESKAERA ONARTZEA.

Xedea

72314787G NAN zenbakidun langilearen guraso-baimen eskaera onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2026ko uztailaren 2ko datarekin aurkeztutako idatzian, Herri lanetako lorazain ofiziala den 72314787G NAN zenbakidun jaunak, ekainaren 8ko 5/2023 Errege Lege-dekretuan aurreikusitako guraso-baimena eskatu du, aste bat hain zuzen ere honela banatuta:

1. astea: Abuztuaren 21etik 28ra

Argudioak

Lehenengoa: Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, La Palma uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun-egoera batzuetan laguntzeko, merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei eta familia-bizitza eta gurasoen eta zaintzaileen bizitza profesionala uztartzeari buruzko Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egiteko eta Europar Batasuneko Zuzenbidea betearazteko eta betetzeko zenbait neurri onartu eta luzatzen dituen ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren 127. artikulua Langileen estatutuaren testuategina onartzen duen 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 48. bis artikulua berria sartu du:

“Artículo 127. Modificación del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre.

El texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, queda modificado como sigue:



(...)

Siete. Se introduce un nuevo artículo 48 bis, con la siguiente redacción:

1. Las personas trabajadoras tendrán derecho a un permiso parental, para el cuidado de hijo, hija o menor acogido por tiempo superior a un año, hasta el momento en que el menor cumpla ocho años.

Este permiso, que tendrá una duración no superior a ocho semanas, continuas o discontinuas, podrá disfrutarse a tiempo completo, o en régimen de jornada a tiempo parcial conforme a lo establecido reglamentariamente.

2. Este permiso constituye un derecho individual de las personas trabajadoras, hombres o mujeres, sin que pueda transferirse su ejercicio.

Corresponderá a la persona trabajadora especificar la fecha de inicio y fin del disfrute o, en su caso, de los períodos de disfrute, debiendo comunicarlo a la empresa con una antelación de diez días o la concretada por los convenios colectivos, salvo fuerza mayor, teniendo en cuenta la situación de aquella y las necesidades organizativas de la empresa.

En caso de que dos o más personas trabajadoras generasen este derecho por el mismo sujeto causante o en otros supuestos definidos por los convenios colectivos en los que el disfrute del permiso parental en el período solicitado altere seriamente el correcto funcionamiento de la empresa, ésta podrá aplazar la concesión del permiso por un período razonable, justificándolo por escrito y después de haber ofrecido una alternativa de disfrute igual de flexible.”

Bigarrena: 72314787G NAN zenbakidun langileak ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren 127. Artikuluak ezarritako baldintza betetzen duela kreditatu du dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

Hirugarrena: Guraso-baimen horren ordainketa ez dago araututa oraingoz, baina esan dezakegu baimen hori kotizatzeke betebeharra duen soldatarik gabeko lizentzia batekin parekatzen dela. Kotizazioei buruzko 2064/1995 Errege Dekretuaren 69. artikulua ezartzen duenez, ordainsaririk gabeko alta-egoeretan – hala nola soldata gabeko lizentzietan –, une bakoitzean langilearen lanbide-taldeari dagokion gutxienekoa hartuko da kotizazio-oinarritzat.

Laugarrena: 2026ko otsailaren 26ko 1131. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hau Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261498651
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 15/07/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/07/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 13:34:44		Datea: 15/07/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege-dekretuaren 127. artikuluan ezarritakoaren arabera Herri lanetako lorazain ofiziala den 72314787G NAN zenbakidun jaunak eskatutako guraso-baimena onartzea:

1. astea: Abuztuaren 21etik 28ra

BIGARRENA: Erabaki hau interesdunari eta Zerbitzu Sailari jakinaraztea.

6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

7.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.


Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da izeneko dokumentu digitalean, aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditente elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskur

helbide honetako atari pribatuan:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016DE1B0000Q5V2T9U7X2

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261498651
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 15/07/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/07/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 13:34:44		Datea: 15/07/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20260714_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "Tokiko Gobernu Batzarra 14-07-2026" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditante elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

bc095bb6e24c3b85b7c131db41dd199f48f0165161cbeb82d41e3d7bce418acd

uskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskur helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua>

Orri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0016DE1B0000Q5V2T9U7X2

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA - 15/07/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/07/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 15/07/2026 13:34:44

DOCUMENTO: 20261498651
Data: 15/07/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

